

2015/03/05

BAIONA-ANGELU-BIARRITZ

**EUSKARA**  
**ERAGILEEN**  
**BILKURA**  
**BILDUMA**

2015/03/05

**BABko EUSKARA ERAGILEEN BILKURA**  
**REUNION DES ACTEURS LANGUE BASQUE DU BAB**

<b>HELBURUAK :</b> Bilana egin. Perspektibak aipatu.	<b>OBJECTIFS :</b> Faire le bilan. Définir les perspectives.
<b>19 :00 ONGI ETORRIA</b>	<b>19 :00 ACCUEIL</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Helburuak / Gai ordena</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Objectifs / Ordre du jour</li></ul>
<b>19 :15 EGITASMOA</b>	<b>19 :15 LE PROJET</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Mahai itzulia:</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Parte hartzaileen aurkezpena.</li><li>- Hiru hiritan euskararen aldeko dinamiken aurkezpena: Euskaraz Bai'onan, MGKE, Mintzalasai.</li></ul></li><li>• <b>Testuingurua - Diagnostikoa:</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Nondik abiatzen gira?</li><li>- Zer dira xedeak?</li></ul></li><li>• <b>Perspektibak:</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Nola sortu BAB mailako euskararen aldeko dinamika zabal bat?</li><li>- Nola eraiki gertakari desberdinen arteko zubia?</li><li>- Zein epe, zein helburu, zein etapa?</li></ul></li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Tour de table :</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Présentation des participant(e)s.</li><li>- Présentation des dynamiques existantes : Euskaraz Bai'onan, Manex G. Kultur Etxea, Mintzalasai.</li></ul></li><li>• <b>Contexte - Diagnostic :</b><ul style="list-style-type: none"><li>- D'où on part ?</li><li>- Quel est la finalité ?</li></ul></li><li>• <b>Perspectives :</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Comment créer une large dynamique en direction de l'euskara au BAB ?</li><li>- Comment créer des liens entre les événements existants ?</li><li>- Quels délais, quels buts, quelles étapes ?</li></ul></li></ul>
<b>21 :00 FIN / BUKAERA</b>	<b>21 :00 FIN / BUKAERA</b>

**HOR ZIREN // PRESENT(E)S (22 perts.) :**

**Mikel Ithurbide** (Hemen Angelu) – **Patxi Ladevese** (MGKE) – **Jean-François Harriet** (Angeluko ikasleak) – **Joel Ustaritz** – **Myriam Bagur** (Les Petits Débrouillards) – **Ihintza Aldana** (Zirutagiriaren elkarte) – **Maialen Zamponi** (Eusko Ikaskuntza) – **Maia Larronde de Ajuriaguerra** (Euskal Moneta) – **Aña Mari Grenié** (Mediateka, Mintzalasai) – **Gérard Bagardie** (Maite Dugulako) – **Jean-Claude Iribarren** (Biarritz Bestelakoa) – **Christine Etchepareborde** (Kimua ikastola) – **Kepa Mouesca** (Uda Leku, Mintzalasai) – **Patxi Amulet** (Angeluarrak) – **Chantal Arzubi** (Hiriondo ikastola, Euskara Baionan) – **Ainhoa Zestau-Aranibar** (EHE, Euskaraz Baionan) – **Stan Eyherabide** (Arroka) – **Fabien Mendiboure** (MGKE, Hemen Angelu) – **Anuntxi Arana** – **Beñat Claverie** (Arroka) – **Eneko Gorri** (Mintzalasai, Biarritzeko Euskara zerbitzua).

**BARKATUAK // EXCUSE(E)S :**

Mintzalasai: Eba Poueyts – Frank Cerramon – Jon Tapie – Maialen Etchverry – Uhaina Azpeitia – Peio Poueyts – Gotzon Hegoas.

Glisseguna: Ramuntxa Etxeberri.

Euskara Baionan: Laida Mujica.

MGKE: Gilen ZALDUNBIDE, Josiane LIBIER.  
Ramuntxo CAMBLONG.

## MAHAI ITZULIA // TOUR DE TABLE

---

Mahai itzuli bat egin ondoren, euskararen aldeko hiru egitasmo nagusi aurkezten dira.

**Euskara Baionan**, 2014ko urrian sortutako eta EHE, Kontseilua, Uda Leku eta Ikastolak biltzen dituen dinamika da. Hitz ordu desberdinak antolatua izan ziren urrian zehar (Mintzodromo, ipuin kondaketa, besta, saltegien itzulia, karrika izendegia...).

Nahi baino elkarte gutxiago bildu zen lehen edizioaren inguruan, baina bigarrenerako inplikazioa zabaltzeko xedea azpimarratua izan da. Baionan ere behar asko badela aipatua izan da, baina baliabide gutxi.

**Manex Goienetxe Kultur Etxea**, 2011an sortu den kulturgune proiektua da. Elkarreak aterpetzeko eta kultura/hizkuntzaren inguruan lan bat eramateko egitasmoa da. Azken 3 urteak proiektua diseinatzeko lanetan ibili dira eta dirudienez agintaldi garaian gauzatuko litzateke.

Dinamikak fase desberdinak ezagutu ditu, baina proiektu konkretu baten inguruan jendea errexki birmotibatzen ahal da.

**Mintzalasai**, 2011ko azaroan Euskararen Herri Batzordearen baitan sortutako egitasmoa da. 25 elkarte biltzen dituen federazioa da eta 3 urtez, izen bereko ekimena antolatu du. Euskararen erabilera garatu, euskararen ikusgarritasuna eta erakargarritasunean eragin eta eragileak batzea du helburu, irailean antolatzen duen astearen bidez.

Elkartegintzaren ausardia eta dinamismoa, baita administrazioaren ahalak uztartzen dituen egitura hibridoa da.

## TESTUINGURUA // CONTEXTE

---

BAB eskualdean bizi da Ipar EHko biztanleriaren parte handi bat (%40) eta %87a euskaratik urrun da. Hizkuntzalari eta behatzaileek diotenez, Euskal Herrian hiriguneetan jokaten da euskararen etorkizunaren parte handi bat.

Gaur egun, euskarak ez ditu Baiona-Angelu-Biarritzeko eragileak eta herritarrak batzen dituen gertakari/dinamikarik.

Alta, euskalgintza inoiz baino antolatu eta sektorializatuagoa da. Bestalde, geroz eta eragile 'euskaltzale' gehiago bada lurralde hartan, baina zubi gutxi bada bi munduen artean. Azkenik, nahiz eta azken urteetan herriko etxeek euskararen aldeko hizkuntza politika batzuk abiatu dituzten, oraindik eskasak dira eta ez diete euskararen beharrei erantzuten.

Horren aitzinean, euskararen aldeko galaxia hori batzea, antolatzea eta ikusgarri bilakatzea, eragin anitzak ukan ditzake.

## PERSPEKTIBAK // PERSPECTIVES

---

Parte hartzaileen 2/3ak hitza hartzen du bere aldian. Gogoeta eta iritzi berdintsuak azaleratzen dira orohar:

- Lurralde zail batean kokatzen gira, baina dena da posible. Ehunekotan euskaldunak gutxi bagira ere, kopuruz asko gira. Aitzineko esperientziek frogatzen dute euskarazko eskaintzak baduela bere publikoa.

- Elkarteen esku da euskararen aldeko "zerbaiten" sortzea, galde bat badela erakusteko. Espazioak irabazi behar dira lurralde honetan, dinamikak aplikatuz eta euskararen normalizazioan eragiteko.

- Desmartxa hortan, eremu berriak (ACBA?), eragile berriak (Iker-CNRS, ESTIA, SpaceJunk?) eta eskaintza berriak (erakargarriak) beharrezkoa dira.

- Hala ere, 3 hirien artean, erritmoa, esperientzia, egutegi, ibilbide eta dinamikak desberdinak dira. Tradizio militantea eta Herriko etxeekiko harremana ez da denetan berdina. Bestalde, dinamikak oraindik hauskorrak dira; elkarrekin lan egiteak ez du ahultzea edo ordezkatzera bideratu behar.

- Etapaz etapa ibili behar dela adosten da, bidea luzea eta zaila izanen baita. Elkarren arteko ezagutza eta konfiantza bermatzeko, baina baita herriko etxeen laguntza bideratzeko (kritika askatasuna galdu gabe).

## ERABAKIAK // DECISIONS

---

### Hartutako 4 erabaki nagusiak:

- 1) **Bakoitzak bere nortasuna** atxikiko du 2015ean, **elkarrekin lan egiteko** asmoarekin.
- 2) **Hiri bakoitza bere proiektuaren diseinuan aitzinatuko da** datorren 30 egunetan.
- 3) **Lantalde bat osatuko da**, BABko hizkuntza-diagnostikoa osatzeko (indar eta ahulguneak).
- 4) **Eragile guziak berriz bilduko dira**, bakoitzaren proiektua ezagutzeko eta lankidetzan aitzinatzeko: komunikazio bateratu bat? Elkar ezagutza bideratzeko zubia? Hitz ordu komun bat, "euskararen ibilbidea"? Abenduaren 3an agerraldi bateratua?...

### Datozen 2 hitz orduak:

- Martxoaren 26a, 19:00, Kalostrape: Diagnostiko bateratua osatzeko bilkura.
- Apirilaren 16an, 19:00, Eusko Ikaskuntza: BABko eragileen bigarren bilkura.